

LEINTZ-GATZAGA

– GIPUZKOA –

Leintz-Gatzaga udalerria Leintz haranean, Deba-goiena eskualdean dago, Donostiatik 82 kilometrorra, eta Gasteiztik 22 kilometrorra.

Herri gisa fundatu baino lehen, Aitzorrotze-ko gotorlekuak defendatutako herrixka multzo bat zen. 1331n azaltzen da hiribildua, *Salinas de Léniz* izenpean, eta gatzaren ustiaketa eta merkataritzarako pribilegioak jaso zituen.

1334an sute handi batek orduko eraikin askotxo hondatu zituen. Eta gauza bera gertatu zen xv. mendean ere. Orduan, baina, sutea, bizilagunek eurek nahita piztu zuten, izurriteari aurre egiteko. Mende horren amaieran, gainera, Oñatiko jaunarekin izan ziren liskarrak. Jauntxoa herrira etorri eta gotorleku bat ere eraiki zuen, Henrike II.ak hiribilduari emandako pribilegioak baliatuz. Leintz hiribilduko jaun aldarrikatu zuen bere burua, eta botere feudala ezarri zuen bertan. Bizilagunek hainbat protesta egin ostean, Errege-erregina Katolikoek tarte sartzu eta gotorlekua eraitsi zioten, bizilagunen eskubideen alde eginda. Hiribildua apurka-apurka berriztatu zuten, gaur egun duen itxura hartu arte. Bertan dira oraindik antzinako eraikin batzuk: San Migel parrokia; jauretxe batzuk, Garro, Soran eta Elexaldekoak, esaterako; eta Zuritzako San Martin basiliza.

Leintz-Gatzaga cuyo término municipal se sitúa en la cabecera del Valle de Léniz, en la comarca del Alto Deba, dista 82 km de la capital donostiarra, y tan sólo 22 km de Vitoria-Gasteiz.

Previamente a su fundación como núcleo poblacional, fue un conjunto de aldeas defendidas por la fortaleza de Aitzorrotz. En 1331 aparece como villa, bajo el nombre de *Salinas de Léniz*, otorgándosele ciertos privilegios para el comercio y explotación de la sal.

En 1334 sufrió un fuerte incendio que destruyó gran parte de las edificaciones de la época, y lo mismo volvería a ocurrir en el siglo xv, pero esta vez lo provocaron los propios habitantes para combatir la peste. A finales de esa centuria tuvieron lugar los enfrentamientos con el Señor de Oñate, que se instaló en la localidad construyéndose una fortaleza para aprovechar los privilegios que Enrique II había concedido a la villa. Se proclamó Señor de la Villa de Léniz, imponiendo su poder feudal. Tras numerosas protestas por parte de sus habitantes, los Reyes Católicos mediaron destruyendo la construcción y restaurando sus derechos a la población. La reconstrucción de la villa se produjo poco a poco alcanzando su actual aspecto, en el que aún podemos ver algunos edificios antiguos, como la iglesia parroquial de San Miguel, algunas casonas como las de Garro, Soran y Elexalde en sus alrededores o la ermita de San Martín de Zuritza.

Dorletako Ama Santutegia / Santuario de la Virgen de Dorleta

UDALERRIKO AUZOETAKO batean dago Dorletako santutegia, Gaztelueta gainean. Gatzaga mantentzeko eta Donejakue Bideko erromesei ostatu emateko eraiki zuten. xx. mendeko 80ko urteetan inguruan egindako arkeologia-lanei esker, xi. edo xii. mendekoa omen den nekropoli bat azaleratu zuten

Hareharriz landutako eraikina da gaur egungoa, xvii. mendekoa, eta Erromanikotik testuingururik gabe, harburu eta kapitel batzuk baino ez ditu, berrerabilita, itxura denez. Hiru buru dira. Bat, gizonezko bizardun bat da; erlie-

EN UNO DE LOS BARRIOS de este municipio se encuentra el Santuario de Dorleta, enclavado en el alto de Gaztelueta o Nuestra Señora del Castillo, que se erigió para proteger el manantial salino y para acoger a los peregrinos del Camino de Santiago. Los trabajos arqueológicos llevados a cabo a finales de los años 80 del pasado siglo xx en las proximidades, localizaron una necrópolis que dataron en los siglos xi o xii.

El actual edificio de sillería de arenisca es del siglo xvii, y conserva como únicos testimonios románicos unos



Ikuspegi orokorra

Vista general

Gizonaren burua / Cabeza masculina



Emakumearen burua / Cabeza femenina





Munstro-aurpegia

Cabeza monstruosa

be handiko ile luzea du, belarrien atzetik. Haren begiak, sudur zabal eta aho estua, hurrengo giza irudian ere azaltzen dira. Bigarrena emakumezko baten burua da; txanoa darama, kokospeko uhal eta guzti. Buru horren alde bietan, forma biribilak ageri dira goiko partean, kapitelaren gainerako atala betetzen. Hirugarren kapitel edo harburuan, azkenik, ez dago zer irudikatu zuten erabat zehazterik. Munstro baten aurpegia dirudi; begi irtenak, mutur arraroa eta lerro bertikalez apaindutako kasket antzeko bat ditu.

Testua eta argazkiak: JCE/MLAI

canecillos o capiteles descontextualizados, ya que parecen haber sido reaprovechados en épocas posteriores. Se trata de tres cabezas. Una de ellas es un personaje masculino con barba y largos cabellos que le caen por detrás de las orejas con mucho relieve. Sus ojos almendrados, nariz y boca estrecha se repiten en la siguiente figura humana. Ésta es otra cabeza humana, pero de mujer, y lleva un tocado con barbuquejo que le rodea la cabeza. A ambos laterales de esta cabeza aparecen unas formas, redondeadas en la parte superior, que llenan el espacio restante del capitel. El tercer capitel, o canecillo, es de difícil identificación, ya que parece una cabeza monstruosa de ojos saltones, extraño hocico y se presenta con una especie de casquete decorado con líneas verticales.

Texto y fotos: JCE/MLAI

Bibliografía / Bibliografía

AGUIRRE SORONDO, A. y LIZARRALDE ELBERIN, K., 1993, pp. 267-268; GOROSABEL, P., (1862) 1972, pp. 429-434; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., II, 1997a, pp. 905, 911-912; LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA, J. J., 1997b, p. 32; MADOZ, P., 1845-1850 (1991), pp. 120-122; MÚJICA, S., 1918 (1980), pp. 1073-1076; URTEAGA ARTIGAS, M., 1992, pp. 205-208.